

## FUNTSEZKO JARDUERAK

Edozein enpresan edo negozio-ereduan hainbat funtsezko jarduera egin behar dira, eta hurrengoak dira garrantzitsuenak: ekoizpena, arazoak konpontzea eta plataforma edo sareko jarduerak.

Gure kasuan, ahal diren jarduera gutxien utziko ditugu kanpoko enpresen esku, guztia ondo funtzionatzen duela ziurtatu nahi dugulako momentu orotan. Lehenik eta behin, erositako giltzarrapoei hatz-markarekin irekitzeko sentsorea jartzea izango da garrantzitsua, gure enpresa garatzeko lehenengo pausua baita.



Funtsezko baliabideetan aipatu dugun bezala, bakoitzak bere papera izango du, beraz arazoak konpontzerako orduan, arloaren arabera erabakiko dugu nork egingo duen. Adibidez, internetari dagokion arazoetan gure aditua, Cristina, arituko da, proiektuaren hobekuntzak egiten Mainer arituko da eta bezeroen tratamenduaren arazoak Garoak konponduko ditu, antolaketarekin zerikusia dituzten arazoak Miriamek konponduko dituen bitartean.

Plataforma edo sareko kontuak guk kudeatuko ditugu, hau da, gure webgunea, [www.segurgiltza.com](http://www.segurgiltza.com), lauron artean kudeatuko dugu Cristinaren informatikako ezagupenak baliatuz. Guk kudeatu ezin izango dugun jarduera bakarra banaketa izango da, Correos enpresaren esku utziko duguna.

